



Altsasuko Udala, 2016



2018ko martxo



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. IRITZIA.....	7
II.1. Finantza-auditoriaren iritzia 2016ko kontu orokorraren gainean.....	8
II.2. Legezotasuna betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia	9
III. UDALAREN 2016KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA.....	10
III.1. 2016ko Udalaren aurrekontuaren betearazpenaren egoera-orria.....	10
III.2. 2016ko Udalaren aurrekontu-emaiza.....	11
III.3. Udalaren diruzaintza-gerakinaren egoera-orria, 2016ko abenduaren 31n	11
III.4. Udalaren egoera-balantzea, 2016ko abenduaren 31n	12
III.5. Udalaren 2016ko emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua	13
IV. IRUZKINAK, OHARRAK ETA GOMENDIOAK.....	14
IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n.....	14
IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea	16
IV.3. Alderdi orokorrak	18
IV.4. Udaleko langileen gastuak	20
IV.5. Udalaren ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.....	22
IV.6. Udalaren transferentziengatiko gastuak	24
IV.7. Udalaren inbertsioak	25
IV.8. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak.....	27
IV.9. Hirigintza	32
IV.10. Musika eta Dantza Eskolako Patronatua.....	34
IV.11. "Aita Barandiaran" Zaharren Egoitzako Patronatua	38
IV.12. "Atabo Altsasu, S.L." sozietatea	42
ERANSKINA. UDALAREN KONTU OROKORRAREN OROITIDAZKIA, 2016	47





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituta, Altsasuko Udalaren 2016ko kontu orokorra fiskalizatu du. Zehazki, kontu orokor hori hauek osatzen dute: aurrekontuko likidazioaren egoera-orriek, aurrekontuko emaitzak, diruzaintza-gerakinak, balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontuak, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoak.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Altsasuko Udalari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak, bai eta sektorekako araudi indardunak ere. Era berean, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua toki-erakundeen aurrekontu-egitura berriaren arabera dagoela aurkeztuta; Nafarroako Gobernuak, irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez, onetsitako egituraren arabera, zehazki.

Altsasuko Udalak, 2016ko urtarrilaren 1ean, 7.471 biztanle zituen, eta kudeaketarako bi erakunde autonomo ditu, Musikako Patronatua eta Zaharren Egoitza. 2016ko abenduaren 31n kopuru adierazgarri hauek zituen:

Erakundea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2016/12/31n
Udala	6.312.413	6.061.108	64
Musikako Patronatua	307.898	304.997	17
Zaharren Egoitza	966.014	1.033.421	27
Guztira (bateratu gabe)	7.586.325	7.399.526	108

2016an, Udalak Musika Eskolako Patronatuari 186.941 euroko ekarpena egin dio eta Zaharren Egoitzari 67.294 eurokoa.


2009ko abenduan, Udalak “Atabo Altsasu, S.L.” sozietatea eratu zuen, 3.300 euroko kapitalarekin eta %100ean Udalaren jabetzakoa. Sozietate horrek zenbait kirol-instalazioren kudeaketaren ardura du. Aurrekontu-egonkortasunaren araudiaren eraginetarako, enpresa hori merkatu-sozietatetzat hartu behar da. 2016an izan zituen datu ekonomiko nagusiak jarraian dagoen taulan daude jasota:





Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileen batez besteko kopurua
"Atabo Altsasu, S.L."	879.412	836.148	43.264	11,5

Laburbilduz, Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera grafiko hone-tan ageri da:



Udala, gainera, mankomunitate hauetako kidea da:

a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Abegi Egiteko eta Orientazio Soziala Emateko Programa, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Programa eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta Ematekoa, Haurrei eta Familiei Arreta emateko Programa, Gizarteratzeko Programa eta Enplegu Sozial Babestukoa.

b) Sakanako Mankomunitatea: zaborren bilketa, uraren goi-hornidura, etxebizitzak berritzea, euskara, immigrazioa, kirolak, turismoa, garapena eta enplegu-tailerra.

Oro har, zerbitzu erkidetu horiek gastu hauek eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalerako gastuak, 2016an
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	212.557
Sakanako Mankomunitatea	550.698





Horrenbestez, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua taula honetan ageri dira:

Udal-zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Erakunde autonomoak/ merkataritza-sozietatea
Administrazio-zerbitzu orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X		
Musika-eskola				X
Hirigintza	X		X	
Udaltzaingoa	X			
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala	X	X		
Argiteria publikoa	X			
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X			
Kirolak (instalazioen kudeaketa)				X
Kirol-jardueren kudeaketa	X	X		
Kultura	X			
Diru-bilketa exekutiboa			X	
Gazteria	X			
Haur-eskola	X			
Liburutegia	X			
Hilerria	X		X	
Zaharren egoitza				X
Bideen garbiketa	X			
Etxebizitzak berritzea		X		
Euskara		X		
Kirola		X		
Immigrazioa		X		
Turismoa		X		
Enplegu-tailerra		X		

Udaleko osoko bilkurak 2016ko otsailaren 17an onartu zituen Udalaren eta bere erakunde autonomoen bakarkako aurrekontuak.

Udalaren kontu orokorrarekin batera ez dago Udalaren eta bere erakunde autonomoen arteko bateratzearen egoera-orria.

Txostena lau ataletan banatuta dago, barne hartuta sarrera hau. Bigarren ataletan, 2016ko kontu orokorraren gaineko gure iritzia ageri da. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat jaso da. Eta azkenik, laugarrenean, hauen gaineko oharra eta ondorioak eman dira: ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea, mendeko erakundeak eta kudeaketako beste arlo nabarmen batzuk. Laugarren atal horretan, gainera, Udalaren barne-kontrola eta antolaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere eman dira.

Halaber, eranskin bat dago, Udalak 2016ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egindako oroitidazkia hartzen duena.

Landa-lana 2017ko azaroan egin zuen auditoria-enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberako auditore baten gainbegiratzearen eta zuzendaritzaren pean.





Era berean, Ganberako zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza eduki da.

Jarduketa honen emaitzak Altsasuko Udaleko alkateari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan jasota dagoenaren arabera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Altsasuko Udaleko eta bere mendeko erakundeetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganberak arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikulua aurreikusitakoaren arabera, lan honen emaitzak Altsasuko alkateari jakinarazi zitzaizkion alegazioak aurkezteko. Alegazioak egiteko epea amaiturik, alkateak ez du bakar bat ere aurkeztu.





II. Iritzia

Altsasuko Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitateko egoera-orriak, Udalari berari dagozkionak, laburbilduta ageri dira txosten honen hirugarren atalean.

Udalaren erantzukizuna

Udaleko kontu-hartzailera da kontu orokorra formulatu eta aurkezteko erantzukizuna duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu, non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko osoko bilkurak 2017ko abuztuaren 11n onartu zuen 2016ko kontu orokorra.

Urteko kontuak formulatu eta aurkezteko erantzukizuna izateaz gainera, Udalak bermatu beharko du urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu-eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta xede horretarako beharrezko jotzen dituen barne kontrolerako sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzia adieraztea 2016ko kontu orokorraren fidagarritasunaren gainean eta bai egin diren eragiketen legezotasunaren gainean ere, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera bete dugu erantzukizun hori. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearazpena egin ditzagula ere, helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan jasotako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, indarrean dauden arauen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta fiskalizatutako ekitaldian araudian ezarritako alderdi nabarmenak betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren edo akatsaren ondoriozkoa





denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egitean, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –erakundeak kontu orokorrak egin ditzan eta legezketasuna betetzea berma dadin garrantzitsua baita–, inguruabarren arabera auditoria-prozedura egokiak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin. Era berean, auditoria batek barne biltzen du aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har hartutako kontu orokorrena.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta legezketasuna betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritzia funtsa izan dezan.

II.1. Finantza-auditoriaren iritzia 2016ko kontu orokorraren gainean

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

a) Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta zati batean eguneratu da 2016an, ondasun higiezin, ibilgailu eta akzioetarako. Eguneratzeko/berrikusteko dago Ibilgetuaren kontabilitateko saldoa –35,91 milioi–, bai inbentarioan jaso gabeko ondasunengatik, bai eta inbentarioan jasotakoengatik ere, katastroko balioen arabera kuantifikatu direnak. Erakunde autonomoen inbentarioak ez dira gaurkotu.

b) Ez dago jasota administratzaileek “Atabo Altsasu, S.L.” udal-sozietatearen urteko kontuak, 2016ko ekitaldiari dagozkionak, formulatu edo egin izana.

Iritzia

Gure ustez, “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean deskribatutako norainokoaren mugek izan ditzaketan eraginengatik ez bada, honekin batera dagoen kontu orokorrak, alderdi adierazgarri guztietan, ondarearen irudi zehatza adierazten du, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioarena eta Udalaren finantza-egoerarena 2016ko abenduaren 31n. Halaber, ekonomia- eta aurrekontu-emaitzak erakusten dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipioei eta irizpideei jarraituta betiere.





Enfasi-paragrafoa

Iritziari eragin gabe, ganbera honek nabarmendu nahi du, kudeaketaren ikuspegitik, presazkoa dela Udalak dagozkion erabakiak hartzea geldiarazita dauden hirigintzako garapenen gainean, kontu-hartzaitzak oroitidazkian adierazten duen moduan, geldiarazte horretatik ondorioztatu ahal izango liratekeen ondorio ekonomiko larriak saihesteko helburuarekin.

II.2. Legezatasuna betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia

Gure iritzian, Udalaren finantzen egoera-orrietan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa, 2016ko ekitaldiari dagozkionak, bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoak kudeatzeari aplikatze-koak zaizkion arauekin.





III. Udalaren 2016ko Kontu Orokorraren laburpena

Jarraian, Udalaren egoera-orri garrantzitsuenak jasotzen dira, 2016ko ekitaldiari dagozkionak.

III.1. 2016ko Udalaren aurrekontuaren betearazpenaren egoera-orria

Gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	% betetakoa	Ordainketak	% ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	2.448.264	47.680	2.495.944	2.374.799	95	2.343.987	99	30.812
2. Ondasun arruntten eta zerbitzuen gastuak	1.404.416	59.007	1.463.423	1.289.976	88	1.212.878	94	77.098
3. Finantza-gastuak	19.554	-1.093	18.461	16.736	91	16.736	100	0
4. Transferentzia arruntak	1.408.245	-112.945	1.295.300	1.229.763	95	1.151.279	94	78.484
5. Ezusteko gastuak	0	0	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	390.611	8.011.463	8.402.074	1.059.564	13	577.434	54	482.130
7. Kapital-transferentziak	0	229.327	229.327	201.902	88	0	0	201.902
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	138.579	1.093	139.672	139.672	100	139.672	100	0
Guztira	5.809.669	8.234.532	14.044.201	6.312.412	45	5.441.986	86	870.426

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	% betetakoa	Kobrantzak	% kobratutakoa	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.050.987	0	2.050.987	2.076.786	101	1.913.995	92	162.791
2. Zeharkako zergak	68.100	0	68.100	94.239	138	67.096	71	27.143
3. Tasak eta beste diru-sarrerak batzuk	804.160	0	804.160	885.911	110	692.457	78	193.454
4. Transferentzia arruntak	2.424.886	11.150	2.436.036	2.421.627	99	2.360.105	97	61.522
5. Ondarezko diru-sarrerak	176.837	0	176.837	265.950	150	173.600	65	92.350
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	284.699	6.969.599	7.254.298	316.595	4	168.471	53	148.123
8. Finantza-aktiboak	0	1.253.783	1.253.783	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	5.809.669	8.234.532	14.044.201	6.061.108	43	5.375.725	89	685.383





III.2. 2016ko Udalaren aurrekontu-emaitza

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	6.059.874	6.061.108
- Aitortutako betebeharrak	-5.596.329	-6.312.412
Aurrekontu-emaitza	463.545	-251.304
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-16.540	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	28.248	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	336.954	892.725
Aurrekontu-emaitza doitua	812.207	641.421

III.3. Udalaren diruzaintza-gerakinaren egoera-orria, 2016ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	634.351	901.052
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	477.547	685.383
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.214.650	1.305.755
(+) Aurrekontutik kanpoko diru-sarrerak	78.988	112.118
(-) Ordainketen itzulketak	0	0
(-) Biltzen zailak diren eskubideak	-1.136.834	-1.202.204
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	421.411	1.158.297
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	185.649	870.426
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	13.670	13.670
(+) Diru-sarreraren itzulketak	0	0
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0
(+) Aurrekontutik kanpoko gastuak	222.092	274.201
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.304.868	2.420.109
(+) Finantzaketako desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	2.517.808	2.162.864
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	622.391	369.690
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.895.417	1.793.174





III.4. Udalaren egoera-balantzea, 2016ko abenduaren 31n

Aktiboa

Deskribapena	2015	2016
A Ibilgetua	40.971.496	35.911.630
1 Ibilgetu materiala	25.687.095	18.439.381
2 Ibilgetu ez-materiala	1.633.927	1.641.187
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	12.237.036	13.932.633
4 Herri-ondasunak	1.410.018	1.895.070
5 Finantza-ibilgetua	3.420	3.360
C Zirkulatzaila	4.203.670	4.655.083
8 Zordunak	1.898.801	2.234.974
9 Finantza-kontuak	2.304.869	2.420.109
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0
Aktiboa, guztira	45.175.166	40.566.713
Oroipen-kontuak	832.020	857.131

Pasiboa

Deskribapena	2015	2016
A Funts berekiak	42.629.121	37.419.353
1 Ondarea eta erreserbak	23.556.600	18.507.310
2 Ekitaldiko emaitzak	876.236	441.250
3 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	18.196.285	18.507.310
C Epe luzerako hartzekodunak	1.997.018	1.857.345
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	1.997.018	1.857.345
D Epe laburrerako zorrak	549.027	1.290.015
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontutik kanpokoak	549.027	1.290.015
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta Periodifikatzeagatiko doikuntzak	0	0
Pasiboa, guztira	45.175.166	40.566.713
Oroipen-kontuak	832.020	857.131





III.5. Udalaren 2016ko emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2015	2016	Hartzeko	2015	2016
Deskribapena			Deskribapena		
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Azken erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	619.722	803.794
61 Langile-gastuak	2.365.144	2.408.826	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	315.232	321.032
62 Finantza-gastuak	101.074	16.736	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.581.218	1.534.857
63 Tributuak	2.290	2.411	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	456.536	454.976
64 Lanak, hornidurak eta kanpo-zerbitzuak	1.275.778	1.253.539			
65 Gizarte-prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.712.640	2.421.627
67 Transferentzia arruntak	1.367.902	1.229.763	77 Kapitalaren gaineko zergak	279.636	181.192
68 Kapital-transferentziak	6.201	201.902	78 Beste diru-sarrera batzuk	87.891	32.604
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	0	157.387	79 Beren helbururako aplikatutako hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartze-koduna)	934.484	479.520	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	6.052.874	5.750.083	Guztira	6.052.874	5.750.083

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2015	2016	Deskribapena	2015	2016
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartze-koduna)	934.484	479.520
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	69	253	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartze-koduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartze-koduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubideak eta betebeharrak aldatzea (saldo zorduna)	58.179	38.017	84 Itxitako aurrekontuetako eskubideak eta betebeharrak aldatzea (saldo hartze-koduna)	0	0
89 Etekin garbia, guztira	876.236	441.250	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	934.484	479.520	Guztira	934.484	479.520





IV. Iruzkinak, oharrak eta gomendioak

Egindako fiskalizazioaren zati gisa, jarraian, oharrak eta iruzkinak ageri dira, informazio gehigarri jakin batekin batera, ganbera honek txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesekoak izan daitezkeela uste duenak. Halaber, Udalaren kudeaketa hobetzeko ganbera honek beharrezko jotzen dituen gomendioak ere ematen dira.

Era berean, fiskalizazio-txosteneko iritzian adierazitako salbuespenei buruzko informazio zehatza hartzen du.

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 5,81 milioiko gastuak eta diru-sarrerak dauzka. Zenbateko hori 8,23 milioi handitu da aurrekontu-aldaketen bidez, hau da, ehuneko 142 hasierako kopuruen gainean, eta, horrenbestez, gastuen eta diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenak 14,04 milioi eurokoak dira. Gehitze horiek justifikatzen dira, gastuetan, inbertsioen kapituluarengatik (0,39tik 8,4 milioira) eta, diru-sarreretan, kapital-transferentzien aurreikuspen handiagotatik eta aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina aplikatzeagatik.

Aitortutako betebeharrak 6,31 milioi eurokoak izan dira eta betearazpen-maila ehuneko 45koa izan da. Maila hori inbertsioen kapituluak izan duen betearazte eskasak, ehuneko 13koak, justifikatzen du. Hartara, 8,4 milioiko behin betiko aurreikuspen batzuetatik 1,1 milioiko balioa duten inbertsioak baino ez dira bete.

Aitortutako eskubideak 6,06 milioikoak izan dira eta betearazpen-maila ehuneko 43koa izan da. Funtsean, portzentaje hori kapital-transferentzien diru-sarreraren betearazte eskasak, ehuneko 4koak, azaltzen du.

Inbertsio errealen (gastuak) eta kapital-transferentzien (diru-sarrerak) kapituluaren betearazpen-maila baxua gertatu da 2016an ez delako aitortutako betebeharririk egon Dermau, Lezalde eta Zelandi sektoreetako hirigintzako garapenetrako. Espediente horiek –oraindik bukatzeko daude– 7,15 milioiko gastu-aurreikuspena dute, nagusiki finantzatua hirigintzako kuoten eraginarekin (6,96 milioi).





Laburbilduz, Udalak gastatutako 100 euroko, hauetara bideratu eta hauekin finantzatu dira:

Gastuaren izaera		Finantzatzeko iturria	
Langileak	38	Tributu bidezko diru-sarrerak	51
Beste gastu arrunt batzuk	43	Transferentziak	45
Inbertsioak	17	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	4
Finantza-zama	2	Zorpetzea	0
	100		100

Hau da, funtzionatzeko gastuak gastu osoaren ehuneko 81 dira, inbertsioak ehuneko 17 eta finantza-zama (interesak gehi amortizazioa) ehuneko 2. Diru-sarreretan, iturri nagusia tributu bidezkoak eta jasotako transferentziak dira, ehuneko 51 eta 45 izanda, hurrenez hurren.

2016rako Udalaren aurrekontuaren betearazpenak eta aurreko ekitaldikoarekiko alderaketak adierazle eta magnitude hauek ditu (eurotan):

	2015 ⁽¹⁾	2016	Alderaketaren % 2016/2015
Aitortutako betebeharrak, guztira	5.596.329	6.312.413	13
Aitortutako eskubideak, guztira	6.059.874	6.061.108	0
Gastuen betearazpena %	42	45	
Diru-sarreraren betetzea %	46	43	
Gastu arruntak	5.112.189	4.911.274	-4
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	5.011.115	4.894.538	-2
Kapitaleko gastuak (6 eta 7)	346.584	1.261.466	264
Finantza-eragiketen gastuak (9)	137.556	139.673	1
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	5.996.294	5.744.513	-4
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	3.166.091	3.056.936	-3
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	63.580	316.595	398
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean %	62	62	
Gastu arrunta biztanleko	683	657	-4
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	423	409	-3
Diru-laguntzekiko mendekotasuna %	46	45	
Aurrezki gordina	985.178	849.975	-14
Finantza-zama	238.630	156.408	-34
Aurrezki garbia	746.548	693.567	-7
Aurrekontu-emaitza doitua	812.207	641.421	-21
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	601.101	-111.632	-119
Diruzaintza-gerakina, guztira	2.517.808	2.162.864	-14
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.895.417	1.793.174	-5
Finantza-zamaren indizea ⁽²⁾	4	3	
Aurrezki gordina diru-sarrera arrunten gainean % ⁽²⁾	16	15	
Zorpetzeko ahalmena %	12	12	
Zor bizia	1.997.018	1.857.345	-7
Zorpetze-maila ⁽²⁾	33	32	
Zor bizia biztanleko	267	249	-7

(1) Fiskalizatu gabeko ekitaldia.

(2) Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.





Gastu totalak ehuneko 13 emendatu dira, eta diru-sarrerak, berriz, ia aldatu gabe egon dira.

Gastua gehitze hori, funtsean, kapitaleko gastuak nabarmen handitu izanak, ehuneko 264, justifikatzen du. Gastu arruntak ehuneko 4 gutxitu dira. Finantza-zama ehuneko 34 murriztu da.

Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 3 gutxitu dira eta diru-sarrera arruntak, oro har, ehuneko 4 murriztu dira. Kapitaleko diru-sarrerak nabarmen handitu dira, ehuneko 398.

Tributu bidezko diru-sarrek, bi ekitaldian, gastu arrunten ehuneko 62 finantzatu dituzte.

Aurrekontu-emaitza doitu ehuneko 21 gutxitu da. Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa ehuneko 119 gutxitu da.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina ehuneko 5 gutxitu da.

Aurrezki gordina ehuneko 14 gutxitu da, eta finantza-zama, berriz, ehuneko 34. Emaitza moduan, aurrezki garbia ehuneko 7 gutxitu da.

Zorpetzeko ahalmen ekonomikoa, bi ekitaldian, ehuneko 12koa izan da.

Zor bizia ehuneko 7 murriztu da, eta 2016an 1,86 milioikoa izatera iritsi da. Zor bizi horrek diru-sarrera arrunten gainean duen portzentajea ehuneko 33koa izatetik ehuneko 32koa izatera igaro da.

Hitz batean, eta azken laburpen moduan, Altsasuko Udalaren finantza-egoera kargarik gabekoa da eta ezaugarri hauek ditu: gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 1,79 milioi eurokoa da, aurrezki garbia 0,69 milioikoa eta zor bizia 1,86 milioi eurokoa.

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera, Udalak, funtsean, zerga-arau hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldian finantzatzeko oreka/ahalamena, kontabilitate nazionalaren baldintzetan neurtua.
- Gastuaren araua, hau da, Udalaren gastu konputagarriaren aldaketak 2016an 2015eko gastuarekiko ezin du gainditu BPGd-aren hazkundearen erreferentziazko tasa. Zehazki, aipatutako ekitaldirako ehuneko 1,8an ezarri zen.
- Zor publikoaren iraunkortasuna edo Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalaren baldintzetan, ezin du gainditu bere diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.





• Zor komertzialaren iraunkortasuna edo hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiak ezin du gainditu, oro har, 30 eguneko epea.

Egin den berrikustea dela-eta, hau adierazi behar dugu:

Kontabilitate nazionalaren eraginetarako, *bateratze-perimetroa* Udalak eta bere bi erakunde autonomoek eratzen dute. “Atabo Altsasu, S.L.” merkataritzako sozietateak merkatuko sozietate kalifikazioa du.

Aurreko zerga-arauen betearazpena kalkulatzeko, Altsasuko Udalak Udalaren beraren eta bi erakunde autonomoen aurrekontuko gastuen eta diru-sarreraren datu erantsiak erabiltzen ditu (batuketa aritmetikoa), beren artean egindako eragiketak kendu gabe (funtsean, Udalaren ekarpenak bi erakunde autonomoei). Gainera, Zaharren Egoitzan 2016ko ekitaldiko diru-sarrera moduan erregistratu dira Udalak 2015ean egindako ekarpenak, 46.450 eurokoak.

Edonola ere, horri dagokionez jarraian adierazten diren ondorioak ez lirateke era nabarmenean aldatuko informazio bateratua aplikatuta.

Aurrekontu-egonkortasunaren araua. 2016an Udalak ez du arau hau bete, jarraian zehazten den moduan, finantzatzeko izan dituen beharrak 0,15 milioi eurokoak izan baitira:

Kontzeptua	2016
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-47.126
Doikuntzak, zalantzazko bilketako diru-sarrerak direla-eta	-98.898
Finantzatzeko beharrak	-146.024

Auditoria-enpresak egindako txostenean inguruabar hori adierazten da, eta gehitzen da udaleko osoko bilkurak onetsi beharreko ekonomia- eta finantza-plan bat egiteko beharra dagoela. Dena den, 2017ko aurrekontua oreka-egoeran onartzearekin desbideratze hori egiatan zuzentzen da.

“Atabo Altsasu, S.L.” merkatu-sozietaterako, egonkortasun-araudiak adierazten du finantza-oreka lortzen dela ekitaldiko emaitza zero edo positiboa izanda. 2016an, sozietate horrek 43.264 euroko emaitza positiboa izan du, eta, hortaz, arau hori bete du.

Gastuaren araua. 2016ko ekitaldiko gastu konputagarria 2015eko ekitaldiko bano txikiagoa da, 108.998 euro txikiagoa, eta, ondorioz, ehuneko 1,8ko erreferentziazko tasa ez gainditzean, zerga-arau hori betetzen da.

Kontzeptua	2015	2016
1. eta 7. kapituluaren arteko gastua	6.700.000	7.446.652
Doikuntzak, zorpetze-interesak direla-eta	-101.074	-16.736
Doikuntzak, funts finalistekin finantzatzeko gastuak direla-eta	-786.025	-1.118.558
Finantzei dagokienez iraunkorrak diren inbertsioak	-377.233	-886.845
Gastu konputagarria, oinarri-urtean	5.435.668	5.424.513
BPGd-aren erreferentziazko tasa	1,018	
2016rako gastu konputagarri maximoa	5.533.511	





Finantza-iraunkortasunaren araua. 2016ko abenduaren 31n, zor bizia 1,86 milioi eurokoa da. Zenbateko hori 2016ko ekitaldiko diru-sarrerara arrunten ehuneko 26 da, eta portzentaje hori indarrean dagoen legeriak ezartzen duen ehuneko 110aren muga baino txikiagoa da.

Hornitzaileei ordaintzeko aldia. Adierazle horren batez besteko balioa 2016an Udalerako eta bere erakunde autonomoetarako hau izan da:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	2016
Lehen hiruhilekoa	-14,27
Bigarren hiruhilekoa	-0,14
Hirugarren hiruhilekoa	-16,72
Laugarren hiruhilekoa	-20,02

Horrenbestez, Udalak eta bere erakunde autonomoek printzipio hori betetzen dute, indarrean dagoen araudiak merkataritzako eragiketetarako ezartzen duen gehieneko aldia baino txikiagoa baita beren ordaintzeko epea.

Amaitzeko, nabarmendu nahi dugu, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Egonkortasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikulua arabera, Udalak, finantzei dagokienez, iraunkorrak diren inbertsioak egin dituela 2016an, aurreko ekitaldiko superabitaren helburua aplikatzean. Inbertsio horien gastua, gutxi gorabehera, 0,9 milioikoa izan da.

Gomendatu behar dugu datu bateratuak kontuan hartzeko kontabilitate nazionalaren baldintzetan, Udalaren aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzearen kalkulua egiteko.

IV.3. Alderdi orokorrak

- Altsasuko Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontu orokorra, 2016ko ekitaldikoa, 2016ko otsailaren 17an Udaleko osoko bilkurak egin zuen saioan onartu zen eta behin betiko argitaratu zen 2016ko apirilaren 4ko NAOn.

- Hasiera batean onetsitako aurrekontuak ehuneko 142ko aurrekontu-aldaketak izan ditu, hasierako kredituak handitzeagatik. Aurrekontu-aldaketen lagin bat berrikusi da -7,6 milioiko zenbatekoa dutenak- eta ondorioztatu da izapidetzea egokia izan dela.

- Kontu orokorrarekin batera ez dago Udalaren eta bere erakunde autonomoen arteko egoera-orri bateratua. "Atabo Altsasu, S.L." sozietatearen urteko kontuak ere ez ditu hartzen.

- 2016an, TRACASA enpresa publikoa kontratatu da ondasun higiezin, ibilgailuen eta Udalaren lurzorua udal-ondarearen inbentarioa egiteko. Enpresa horrek lana amaitu du eta bere txostenak 2016an eman ditu.

Berrikusi ondotik, Udaleko osoko bilkurak 2017ko ekainaren 23an onartu zuen inbentario hori.





Ondasun higiezin, ibilgailuen eta lurzoruen udal-ondarearen kontabilitateko balioak eguneratu egin dira eta ibilgetuaren balio osoa 5,9 milioi gutxitu da. Era berean erregistratu dira dagozkien amortizazioak eta doikuntzak ondarearen kontra.

Kontu-hartzaitzak bere oroitidazkian adierazten duen moduan, aztertze daude, batetik, aurreko inbentarioan sartuta ez dauden gainerako ondasunak, eta, bestetik, hartan ondasun higieziari esleitutako balorazioaren arrazoizkotasuna (katastroko balioak). Erakunde autonomoen inbentarioa ere egin behar da.

- Diruzaintza. Kontu korrante baten saldoa -1.558 euro- ez da sartzen kontabilitatean, berriaz duen funtzionamenduarengatik, Udalak kontu korrante horretara egindako ekarpenak ekitaldiko gastutzat jotzen baitira.

- Kontingentziak. Udaleko kontu-hartzaileak egindako oroitidazkian, prozedura judizialei atxikita dauden kontuak adierazten dira. Nagusiki, hauekin lotutakoak dira: tributuen kontrolerako planetik eratorrita, tributu-gaietan egindako jarduketan ondoriozko errekursoak, gainbalioei buruzko zergaren likidazioak eta "Otradiko Santo Kristo" 3. sektorearen behin betiko likidazioa.

- Udalak banku-erakundeekin duen zor biziaren epemugen egutegia, 2016ko abenduaren 31n, hau da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Portzentajea	Portzentaje metatua
2017	140.572	7	7
2018	140.918	7	14
2019	141.204	8	22
2020	141.491	8	30
2021	106.986	6	36
2022	94.399	5	41
Gainerakoa	1.091.775	59	100
Guztira	1.857.345	100	

Hau gomendatzen dugu:

- *Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuak legeria indardunak ezarritako epeen barnean egitea eta onartzea.*

- *Onartutako aurrekontu-aldaketek garatu behar den jardueraren aurreikuspenei eta kudeatzeko aukerei arrazoizko moduan erantzun diezaietela saiatzea.*

- *Kontu orokorrean aurkeztea, eta garatutako jardueraren irudi zehatza osatzeko helburua izanik, Udalak bere erakunde autonomoekin duen egoera-orri bateratua eta bere merkataritza-sozietatearen urteko kontuak.*

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa egiteko prozesua osatu eta ibilgetuaren kontabilitateko balioa eguneratzea.*





• *Kutxa finkoko aurrerakinen figura aplikatzea, beren funtzionamendu berezia aintzat hartuta, hala egitea eskatzen duten bankuko kontuak erregulatzeko.*

IV.4. Udaleko langileen gastuak

Langileen gastuak 2,37 milioikoak izan ziren, ehuneko 95eko betearazpen-portzentajea izan zuten eta 2016an sortutako gastu guztien ehuneko 38 izan ziren. 2015arekin alderatuta, gastu hori ehuneko 2 emendatu da.

Banakatzea, eta 2015eko gastuekin alderatzea, hau da:

Langileen gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Goi-karguak	21.659	21.000	-3
Langile funtzionarioak	726.206	721.909	-1
Lan-kontratudun langileak	670.169	749.758	12
Gizarte-zamak	914.588	882.132	-4
Guztira	2.332.622	2.374.799	2

2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legean jasotako ehuneko bateko soldata-igoerak eta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagunduta, aldi baterako hamar langile kontratatzeak justifikatzen du, funtsean, gastua handitu izana.

Aurrekontuak hasiera batean onestea ekarri zuen Udaleko osoko bilkuraren saioan, 2016ko otsailean, Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2016rako plantilla organikoa baztertu zen. Horrenbestez, 2016rako plantilla organiko indarduna 2015erako onartutakoa da, NAOn argitara emandakoa 2015eko abuztuan.

2017ko maiatzean, 2017ko plantilla organikoa onartu zen.

2015eko plantilla organikoaren arabera, guztira 60 lanpostu hartzen dira kontuan, xehetasun hauekin:

Udalaren arloa-Plantilla	Lanpostuen kopurua	Lanpostu hutsen kopurua
Funtzionarioak	28	9
Lan-kontratudun langileak	32	28
Guztira	60	37

2015eko plantillan, lanpostuen egoera hau da:

- Lanpostu hutsak lanpostu guztien ehuneko 60 baino gehiago dira.
- Lanpostu huts horietatik, aldi baterako kontratu-forma desberdinen bidez, hauek daude beteta: 1 lan-kontratu mugagabe baten bidez, 7 administrazio-kontratuen bidez eta 18 obra edo zerbitzuko kontratuen bidez.





- Mailen arabera, banaketa hau da:

Maila	Funtzionarioak	Lan-kontratudunak	Lanpostuak, guztira
A	1		1
A (B)	1		1
B	4	1	5
C	16	4	20
D	6	14	20
E		8	8
Hitzarmenetik kanpo		5	5
Guztira	28	32	60

A (B) mailako lanpostua Udaleko kontu-hartzaileari dagokio. “Hitzarmenetik kanpo” dauden lanpostuak “hezitzaileari” eta “garbiketako langileari” dagozkio, eta 2017ko plantillan lan-kontratudun lanpostu moduan ageri dira.

Udaltzaingoko langileak direla-eta, 2015eko plantillan, 11 lanpostu daude jasota. Haietatik 2 kaporalak edo kaboak dira, 7 udaltzainak dira eta 2 poliziako laguntzaileak. Denak C mailako funtzionarioak dira, laguntzaileak izan ezik, haiek D mailakoak baitira. Haietatik, 5 udaltzain-lanpostu eta poliziako laguntzailearen 2ak lanpostu hutsak dira.

2016ko abenduaren 31n, Udalean, guztira, 64 langile ari dira lanean, xehetasun hauen arabera:

Enplegatuak	Lanpostuen kopurua
Funtzionarioak	14
Administrazio-kontratudunak	10
Lan-kontratudun finkoak	3
Aldi baterako lan-kontratudunak	37
Guztira	64

2016ko abenduaren 31n, guztira, 17 pertsona dira lanpostu hutsak betetzeko aldi baterako langile moduan kontratatutakoak.

Aldi baterako lan-kontratudun gehienek bost urteko antzintasuna baino handiagoa dute, eta bi kasu nabarmendu behar dira: bata 1994az geroztik eta bestea 1998az geroztik ari direnak.

Kaleratutako azken enplegu-eskaintza publikoa 2014ko ekitaldikoa da.

Aldi baterako langileak lanean hasia, funtsean, deialdiko zerrenden bidez egiten da; hiru urtean behin eguneratzen diren zerrenden bidez. Hartara, haur-hezitzaileen eta monitoreen zerrendak 2017an eguneratu dira (aurrekoak 2014koak ziren). Garbiketako langileenak eta zerbitzu anitzetakoak, ordea, ez dira eguneratu 2010az geroztik. 2016an, administrari laguntzailea kontratatzeke zerrenden deialdi bat egin da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez.





Egindako aldi baterako kontratatzeen lagin bat berrikusi da eta ondorioztatu da, oro har, araudiarekin bat eginda gauzatu direla.

Era berean, langileen soldaten lagin bat aztertu da eta ondorioztatu da, oro har, zuzen kontabilizatuta daudela, ordaindutako lansariak betetako lanposturako ezarrira daudenak direla eta egindako atxikipekin zuzenak direla.

Ez da prestatu langile bakoitzeko hileko aldaketak jasotzen dituen dokumentua, fiskalizazio egokia egiteko.

Hau gomendatzen dugu:

- *Urtero onartzea langileen plantilla organikoa, langileen kudeaketa zuzenerako tresna egokia izan dadin.*
- *Aldi baterako langileen egoera erregularizatzea, egungo araudi-testuinguruaren barnean, lanpostu hutsetarako deia eginez.*
- *Dokumentu formalizatu batean, lansarien hileko aldaketen justifikazioak prestatzea.*

IV.5. Udalaren ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 1,3 milioikoak izan ziren, ehuneko 88ko betearazpen-portzentajea izan zuten eta 2016an sortutako gastu guztien ehuneko 20 izan ziren. 2015arekin alderatuta, gastu hori ehuneko 2 murriztu da.

Kapitulu honetan sartutako gastu nagusiak hauek dira, eta aurreko ekitaldikoekin alderatuta daude:

Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Aitoritutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Hornidurak	475.189	505.500	6
Beste enpresa eta profesional batzuek egindako lanak	196.557	174.158	-11
Kultura Batzordearen jarduerak	53.516	58.216	9
Jaietako jarduerak	43.645	57.294	31
Gainerako gastuak, askotarikoak	198.960	220.045	11
Gainerako gastuak	342.724	274.763	-20
2. kapitulua, guztira	1.310.591	1.289.976	-2





Jarraian dagoen kontratua berrikusi da, bere gastuak kapitulu honetan sartzen baitira:

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleitzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	Eskaintzaileen kop.	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	2016ko gastua (BEZa kanpo)
Udal-baratzeak arautzeko hitzarmena edo ordenantza idaztea	Laguntzako	Fakturaren kontra	3.306	E/A	3.306	3.306

Halaber, Sakanako Mankomunitateak hornitzen duen uraren gastua berrikusi da. Gastu horren zenbatekoa 235.628 eurokoa da.

Berrikuste-lan horietatik ondorioztatu da araudi erregulatzaileria betetzen dela eta egoki justifikatu eta kontabilizatzen dela.

Edonola ere, kontu-hartzaileak oroitidazkian adierazten duen moduan –“2016an kontratu ugari zeuden iraupena amaituta zutenak eta beste lizitazio bat eduki behar zutenak: hilerriaren kudeaketa, aseguruak, hirigintzako aholkularitzako zerbitzua, kontagailuak irakurtzeko zerbitzua eta abar”–, eta, hartara, zenbateko nabarmena duten eta dagokien kontratua mugaeguneratu ondoren ematen diren zerbitzu hauek dektatu dira:

Deskribapena	2016ko gastuaren zenbatekoa (BEZa kanpo)
Aseguruak	25.624
Kontagailuak irakurtzeko zerbitzua	19.113
Hirigintzako aholkularitza	11.815
Zelandi ikastetxeko berokuntzarako gasa	9.857
Erregaiz hornitzea	9.767
Argiteriaren mantentze-lanak	7.835
Hilerriaren kudeaketa	6.570
Zenbatekoa, guztira	90.581

Zenbateko hori kapitulu honetako gastuaren ehuneko 7 da.

Gomendioak:

- *Kontrol handiagoa egitea beste batzuekin dauden kontratuen indarraldia- ren gainean eta nahiko denborarekin planifikatzea, egokia bada, kontratuari dagokion lizitazio-prozedura abiaraztea.*

- *Kontratuaren euskarririk gabeko betebeharrak onartu behar diren kasue- tan, betetzeko oinarrietan ezarri behar da izapidetzeko prozedura egokia, bide- gabeko aberastearen teoriaren arabera, dagokion organo eskudunak onets de- zan.*

- *Egokiak diren kontratatze-espeditenteak izapidetzea hainbat zerbitzuren gainean, beren errepikatzea eta zenbatekoa kontuan hartuta, indarrean dagoen araudiak hala egitea jasotzen duen kasuetan.*





IV.6. Udalaren transferentziengatiko gastuak

2016an transferentzia arruntengatiko gastuak 1,23 milioikoak izan ziren, ehuneko 95eko betearazpen-portzentajea izan zuten eta ekitaldi horretan sortu-tako gastu guztien ehuneko 20 izan ziren. 2015arekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 10 murriztu dira.

2016ko gastuen xehetasunak eta 2015ekoekin alderatzea jarraian ageri dira:

Transferentzia arruntengatiko gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Mankomunitateei eta Partzuergoari	575.780	547.358	-5
Tokiko erakundearen erakunde autonomoei	279.725	254.235	-9
Irabazteko asmorik ez duten erakundeei	176.962	202.532	14
Erakundearen merkataritzako sozietateei	147.889	163.592	11
Enpresa pribatuei	125.207	0	-100
Beste erakunde publiko batzuei	37.660	39.629	5
Beste transferentzia batzuk	24.680	22.417	-9
4. kapitulua, guztira	1.367.903	1.229.763	-10

Egindako transferentzia arrunt nagusiak zerbitzu erkidetuak (oinarrizko gi-zarte-zerbitzuak eta Sakanako Mankomunitatea), erakunde autonomoetarako ekarpenak eta irabazteko asmorik gabeko erakunde desberdinak finantzatzera bideratu dira. Hartara, aurreko hiru kontzeptu horien batura 4. kapituluko gastu osoaren ehuneko 82 da.

“Beste erakunde publiko batzuei” egindako transferentziak ANIMSA sozietate publikoak Udalari ematen dion zerbitzu informatikoarengatik eragindako gastuari dagozkie. Gastuaren izaera aintzat hartuta, aurrekontuaren 2. kapitulu-luan sartu beharrekoa litzateke.

Zerbitzu erkidetuengatik egindako transferentziak ez ezik, beste hauek ere aztertu dira: Erretirodunen Elkarteari emandako diru-laguntzak –10.857 euroko diru-laguntza izenduna, Erretirodunen Klubaren mantentze-lanen gastuak ordaintzeko–, futbol-eskolarekin elkarlanean aritzeko hitzarmena –24.692 euro– eta “Atabo Altsasu, S.L.” sozietateari emana dion agindua, kirol-instalazioak kudeatzeko –163,592 euro–.

Aurreko aztertze-lan horietatik adierazi behar dugu, oro har, diru-laguntzak eman eta erregistratu direla aplikatzekoa den araudiaren arabera. Dena den, alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Mankomunitateetako eta partzuergoetako kide delako Udalari egotzitako gastuaren arrazoizkotasuna frogatzeko, udal-zerbitzuek ez dute beti arrazoizkotasun hori egiaztatzeko bidea emango dien informazio ekonomiko nahikoa.

- Udalak zenbait lankidetzeta-hitzarmen izenpetu ditu kirol-klubekin eta kirol-eskolekin. Hitzarmen horien bidez, Udalak berak antolatu eta kobratzen dituen jarduera batzuk kudeatzen dituzte erakunde horiek. Gure ustez, jarduteko era





hori berez zerbitzuak ematea da eta ez diruz lagundu beharreko jarduera bat, eta, horrenbestez, Kontratuen Foru Legearen arabera izapidetu beharko litzateke eta ondasun arrunten eta zerbitzuen atalean, 2. kapituluan, sartu beharko litzateke aurrekontuari dagokionez. Udaleko kontu-hartzaitzak ezbaian jarri du alderdi hori.

- Udal-sozietateari emana dion agindutik eratortzen den gastua, era berean, aurrekontuko 2. kapituluan sartu beharrekoa da.

2016an kapital-transferentziak 201.902 eurokoak izan ziren, ehuneko 88ko betearazpen-portzentajea izan zuten eta ekitaldi horretan sortutako gastu guztien ehuneko 3 izan ziren. Zenbateko hori urbanizatzeko kuotak itzuli behar izateari dagokio. Zehazki, Udalak Otadiko 3. sektoreko lursailen jabeei eta eraikuntza-enpresei igorri zizkien kuota horiek, eta epailearen epai bidez onartu ziren. Itzulketa horiek guztiak 2017ko ekitaldian egin dira.

Gomendioak:

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea eta, hartan, besteak beste, hauek ezartzea: helburuak, ondorioak, aurrez ikustekoak diren kostuak, baliabideen aurreikuspena, eraginak...*

- *Udala sartuta dagoen mankomunitateei eta partzuergoei exijitza haietako kide izatetik eratorritako gastuaren egokitasuna egiaztatzeke udal-zerbitzuek behar duten informazio ekonomikoa.*

- *Kirol-eskolen eta kirol-kluben kudeaketa Kontratuen Foru Legearen arabera izapidetzea.*

- *Aurrekontuaren 2. kapituluan sartzea bai sozietate publikoei emandako aginduen gastuak eta bai kirol-eskolekin eta kirol-klubekin dituen hitzarmenen gastuak ere.*

IV.7. Udalaren inbertsioak

Inbertsioengatiko gastuak 1,06 milioikoak izan dira, eta betearazpen-portzentajea ehuneko 13koa izan da. 2015eko gastuen aldean, ehuneko 211 emendatu dira.

Kapitulu honen betearazpen-maila txikia gauzatzeko dauden hirigintzako garapenen ondoriozkoa da. 2016an, 7,15 milioi euroko aldaketak egin dira, Dermau, Lezalde eta Zelandiko hirigintzako garapenekin lotuta. Dena den, ez da aitortutako betebeharririk egon kontzeptu horiengatik. Espedienteak amaitzeko daude.





2016an, gastu nagusiak hauek izan dira. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta daude:

Inbertsio errealak	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroa eraikitzea	0	580.130	100
Inbertsioak mendietan	0	59.162	100
Kaleak zolatzea	34.062	51.751	52
Hilerriko nitxoak	0	47.940	100
Gainerako inbertsioak	306.321	320.581	5
6. kapitulua, guztira	340.383	1.059.564	211

Udalak egindako zenbait inbertsiorengatik aitortutako betebeharrak nabarmen handitu dira 2016an, eta haien artean hauek aipatu behar dira: 0 eta 3 urte arteko haurrentzako hezkuntza-zentroa eraikitzea, mendietan inbertsioak egitea, kaleak zolatzea eta udal-hilerrian 56 nitxo eraikitze lanak egitea.

Esleipen hauek aztertu dira, beren gastuak kapitulu honetan sartzen baitira:

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleitzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	Eskaintzailleen kop.	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	2016ko gastua (BEZa kanpo)
0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroa eraikitzea	Obrak	Negoziatua, publizitaterik gabe	461.784	2	424.840	460.292
Ibilgailuetarako behin-behineko aparkalekua	Obrak	Fakturaren kontra	29.996	E/A	29.996	29.996
Bi haur-parkez hornitzea	Hornidura	Negoziatua, publizitaterik gabe	20.000	1	19.000	19.000
Inbentario-lanak egitea	Laguntza	Fakturaren kontra	6.000	E/A	6.000	6.000
0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroaren proiektua idaztea	Laguntza	Fakturaren kontra	5.995	E/A	5.995	5.995
0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroaren obraren zuzendaritza	Laguntza	Fakturaren kontra	5.995	E/A	5.995	5.995

Kapitulu honetan sartutako gastuen ehuneko 12ren lagin bat aztertu da.

Aztertze horietatik ondorioztatu da, oro har, indarrean dagoen legeria errespetatu eta bete dela, lizitazioen zenbatekoen gaineko desbideratzeak justifikatuta daudela eta gastuak zuzen kontabilizatuta egon direla eta baimenduta daudela.

0 eta 3 urte arteko haurrentzako hezkuntza-zentroa eraikitze kontratatze-espeditentea, hasiera batean, zentroaren proiektua idaztearekin eta obraren zuzendaritzarekin batera onartu zen. Hasiera batean baliatutako kontratatze-prozedura irekia zen. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkeztu zuen erreklamazio baten ondorioz, lizitazioa baliogabetu egin zen. Hori dela-eta, Udalak esleipen zuzenaren bidez kontratatu zituen, eta bereiz, proiektua idaztea eta obraren zuzendaritza (bakoitza 5.995 euroren truke), eta zentroa eraikitzea, publizitaterik gabeko negoziatuaren prozeduraren bidez, lanak egitea presazkoa baitzen.





Ekitaldiko inbertsio erreal gisa kontabilizatu da TRACASak Udalaren inbentarioaren gainean egin duen lanaren kostua. 6.000 euro izan dira, BEZa kanpo.

Gomendatu behar dugu era egokian planifikatzeko inbertsioak eta inbertsio horiek gauzatzeko egutegiak ezartzeko, hartara, aurrekontu errealistagoak eta kudeatzeko aukerekin neurri handiagoan bat datozenak egiteko helburuarekin.

IV.8. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak

2016ko ekitaldian, kapitulu hauetan aitortutako eskubideak jarraian dagoen taulan ageri dira, eta bai aurreko ekitaldiko eskubideekin alderatuta ere:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
1.-Zuzeneko zergak	2.249.563	2.076.786	8
2.-Zeharkako zergak	82.722	94.239	14
3.-Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	833.806	885.911	6
4.-Transferentzia arruntak	2.712.640	2.421.627	-11
5.-Ondarezko diru-sarrerak	117.563	265.950	126
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	5.996.294	5.744.513	-4
6.-Inbertsio errealeen besterentzea	0	0	0
7.-Kapital-transferentziak	63.580	316.595	398
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	63.580	316.595	398
8.-Finantza-aktiboak	0	0	0
9.-Finantza-pasiboak	0	0	0
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8 eta 9)	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira	6.059.874	6.061.108	0

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 6,06 milioikoak izan dira, eta haie-tatik 5,74 milioi euro diru-sarrera arruntei dagozkie eta 0,32 milioi kapitaleko diru-sarrerei. Diru-sarreraren aurrekontuaren betearazpen-maila ehuneko 43koa izan da. 2015eko datuak aintzat hartuta, ez da era adierazgarrian aldatu diru-sarreraren zenbateko osoa.

EIOZ eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga handitu egin da, 2015ean ustiatutako oihan-aprobetxamenduen azken likidazioak eta mendiak ustiatzeko 2016-2017rako bi urteko kontzesio berri bat, eta bai Nafarroako Go-bernuak kapitaleko lau diru-laguntza eman izana ere, 2016an egindako lanak finantzatzeko dituztenak.

2015ean eta 2016an ez da hitzartu finantza-zorpetze berririk.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontu-sailen lagin baten gainean egindako azter-ke-tatik –zergak, uraren eta estolderiaren tasa, eta kirol-eskoletako matrikulak-egiaztatu dugu, oro har, haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizazioa egokia dela.





- Zergengatiko diru-sarrerak

Taula honetan, udal-zerga bakoitzean aitortutako eskubideen alderaketa bat dago:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Lurraren kontribuzioa	1.177.308	1.141.065	-3
Ibilgailuak	456.536	454.976	0
Lurren balio-gehikuntza	294.531	181.192	-38
Ekonomia-jardueren zerga	321.188	299.553	-7
EIOZ	82.722	94.239	14
Guztira	2.332.285	2.171.025	-7

Aldaketa adierazgarriak gainbalioen zergarengatik diru-sarrerak gutxitzean ikusten dira –higiezinaren transmisioak murrizteagatik– eta bai EIOZ zergarengatik diru-sarrerak handitzean –aurrekontu-zenbateko handiagoa duten lanen eskaerak egin direlako eta obrak eskatzeko espediente gehiago izan direlako–.

Lurraren kontribuzioa murriztu da, 2015ean izan ziren bidegabeko diru-sarrerak itzuli direlako, eta Ekonomia-jardueren zergan ikusten den gutxitzea ekitaldian gauzatutako zerga-planaren emaitzari dagokio (zergadunaren aldeko balorazioa).

2016an, Udalak tasa hauek aplikatu ditu :

Zergak	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,36874	0,10 -0,50
Ekonomia-jardueren zerga	1,4	1 - 1,4
EIOZ	3,98	2 - 5
Lurren balio-gehikuntzaren zerga		
Gaurkotzearen koefizientea	3,2 eta 2,4 bitarte	2,1 eta 3,6 bitarte
Zerga-tasa	20	8 a 20

Tasa horiek 2015ekoen antzekoak dira.

2016an indarrean dagoen balorazioaren txostena 2010etik eratorritakoa da. 2017ko ekitaldian eguneratu egin da.

Lurren balio-gehikuntzaren zerga kudeatzen eta likidatzen jarraitu da, nahiz eta haren gainean legezko ziurgabetasuna dagoen.





- Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasengatik izan diren diru-sarreraren, prezioen eta beste diru-sarrera batzuen 2016ko eta 2015eko datuak erakusten dira jarraian:

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Uraren, estolderiaren eta kontagailuen mantentze-lanen tasak	299.227	313.329	5
Enpresa elektrikoaren + telefonikoaren kanona	134.272	129.910	-3
Kultura-jardueretarako sarrerak	82.225	73.114	-11
Oinarrizko kirol-eskoletako matrikulak	65.222	67.566	4
Zirkulazioko isunak eta hirigintzako zehapenak	17.458	50.569	190
Txiribulo haur-eskolako kuotak	51.992	46.674	-10
Irekiera-lizentziak	18.258	36.348	99
Azoka	24.049	23.232	-3
Ikastaroetako izen-emateak	22.958	21.122	-8
Premiamendu-errekarguak	17.320	18.716	8
Aretoak eta gelak erabiltzea	17.245	14.668	-15
Beste batzuk	83.580	90.663	8
3. kapitulua, guztira	833.806	885.911	6

Kontzeptu nagusia uraren, estolderiaren eta kontagailuen mantentze-lanen tasei dagokie. 2015eko ekitaldiko datuekin alderatuta tasa horiek aldatu izana kontzeptu horrengatik Sakanako Mankomunitateak emandako zerbitzuak handitu izanari dagokio.

Hirigintzarekin lotutako zehapen larriak aitortzetik dator kapitulua emendatzea, nagusiki, Udalak onartutako lizentzia egokirik gabe jarduerak eta lanak egiteagatik. Halaber, ekitaldian izan diren obren lizentzia gehienak lokal berriak irekitzearekin lotuta daude eta, hortaz, horrek eragina du irekieralizentzietan. Beste alde batetik, haur-eskolako kuotak gutxitu dira 2016ko ikasurtean, ikasle kopurua murriztu delako.

- Ondarezko diru-sarrerak

2015arekin alderatuta 2016an izan den bilakaera jarraian erakusten da:

Ondarezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Urteko oihan-aprobetxamendua	2.769	159.300	5653
Harrobien kontzesioa	62.780	62.200	-1
Udal-arloen errentamenduak	14.886	14.442	-3
Nitxoak	13.628	9.442	-31
Bankuetako kontuen interesak	3.185	4.443	39
Ondarezko beste diru-sarrera batzuk	20.315	16.123	-21
5. kapitulua, guztira	117.563	265.950	126

Diru-sarrera hauetako kontzeptu nagusia, eta 2015eko ekitaldiarekiko aldaketa justifikatzen duena, urteko oihan-aprobetxamendutik datorrena da. 2014ko ekitaldiaren amaieran, enkante publikoaren bidez, oihan-aprobetxamendurako bi lote esleitu ziren. 2015ean ustiatu ziren, beren azken likidazioa 2016an egin





zen eta zenbatekoa 38.350 eurokoa izan zen. Halaber, 2016ko ekitaldian, oihan-aprobetxamendurako lote bat ustiatzeagatik bi urteko esleipen baten ehuneko 100a aitortu da eta 120.950 euro izan dira.

Harrobia ustiatzeko kontzesioa dela-eta, ikusi dugu benetan hartutako eremuaren gainean ez dela aldian behingo neurketarik egiten. Horrez gain, ez dago jasota ez plan orokorrik ez eta ustiatzeko urteko planik ere.

Harrobiaren kontzesioan ezarrita dauden baldintzak bete daitezela gomendatzen dugu.

- Transferentziengatik diru-sarrerak

2016an eta 2015ean transferentziengatik izan diren diru-sarreraren alderaketa bat erakusten da jarraian:

Transferentziengatik diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Toki ogasunek parte hartzeko funtsa	1.979.061	2.016.663	2
Haur-eskola	41.224	41.527	1
Funtzionarioen montepioa	184.748	163.285	-12
Korporazioko kideen ordainsariak	52.768	53.771	2
Iragaitzako bidarien aterpetxea	15.778	14.550	8
Nafarroako Berdintasunerako Institutua	10.000	3.618	-64
Beste diru-laguntza batzuk	15.775	20.289	29
<i>Nafarroako Gobernuaren guztizko partziala</i>	<i>2.299.354</i>	<i>2.313.703</i>	<i>1</i>
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	27.388	54.352	98
Vianako Printzearen Institutua	24.225	33.916	40
Beste diru-laguntza eta ekarpen batzuk	11.846	19.656	66
Aseguru-etxeetatik berreskuratutako ezbeharrak	349.827	0	-100
<i>Beste diru-laguntza batzuen guztizko partziala</i>	<i>413.286</i>	<i>107.924</i>	<i>-74</i>
4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira	2.712.640	2.421.627	-11
Nafarroako Gobernuarenak	0	302.025	0
Gizarte-ekintzako ekarpenak	7.000	9.000	29
Hirigintzako eraginak	71.476	0	-100
Zumalakarregiko arkupeak konpontzeko kuotak	-14.895	0	-100
Hirigintzako aprobetxamenduak	0	5.569	0
7. kapitulua, kapital-transferentziak, guztira	63.581	316.594	398

Beste transferentzia arrunt batzuetan izandako murrizketa, nagusiki, aseguratutako ezbeharrengatik diru-sarrerarik egon izanak azaltzen du. Hartara, 2015aren amaieran haur-eskolak su hartu zuen eta aseguruak 342.794 euro ordaindu zituen berritzeko. Zenbatekoaren zati bat diruzaintza-gerakin lotetsi edo atxiki moduan dago jasota, lan gehienak 2016an egin baitira.

Kapital-transferentziei dagokienez, aldaketa nabarmena Nafarroako Gobernuaren aldetik jasotako diru-laguntzetatik dator. 2016an egindako lanen inbertsioak finantzatzeko dira, eta haien artean hauek daude: 0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroa berritzea, mendietan inbertsioak egitea egoki ustiatu ahal iza-





teko, inbertsioa egitea Zelandi ikastetxean eta Udalaren inbentarioa eguneratzea.

a) Itxitako ekitaldietako diru-sarrerak

Jarraian dagoen taula honetan, 2016an egindako kobrantzen eta 2016ko abenduaren 31n kobratzeko zeuden saldoen laburpen bat dago; itxitako ekitaldietako aurrekontuetako diru-sarrerarenak, hain zuzen:

Urtea	Hasierako saldoa 2016/01/01	Kobrantzak 2016	Kaudimengabeziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016/12/31	% azken saldoaren gainean	Kobrantzen % hasierako saldoaren gainean
2015	477.917	266.597	-4.218	207.102	16	56
2014	155.631	32.374	-5.566	117.691	9	21
2013	122.016	11.044	-9.452	101.520	8	9
2012	320.695	8.081	-7.687	304.927	23	3
2011	98.604	8.638	-8.163	81.803	6	9
2010	100.054	3.507	-4.846	91.701	7	4
2009 eta aurrekoak	417.650	12.316	-4.323	401.011	31	3
Guztira	1.692.567	342.557	-44.255	1.305.755	100	20

Itxitako ekitaldiak direla-eta kobratzeko dauden saldoen xehetasunak, bilketako kontzeptuaren arabera, hauek dira:

Itxitako ekitaldietako aurrekontuak. Diru-sarrerak	Zenbatekoa	% guztiaren gainean
Lurraren kontribuzioa	165.068	13
Ekonomia-jardueren zerga	201.795	15
Lurren balio-gehikuntzaren zerga	74.823	6
Ibilgailuen gaineko zerga	306.538	23
EIOZ eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	51.814	4
Hirigintzako aprobetxamenduak	14.390	1
Irekiera-lizentziak eta hirigintzakoak	15.739	1
Hirigintzako eraginak	211.872	16
Zaratengatiko zehapenak, hirigintzako arau-hausteak	157.314	12
Uraren eta estolderiaren tasak	64.592	5
Brigadaren lanak	5.288	1
Gainerakoak	36.522	3
Guztira, 2016/12/31n	1.305.755	100

Hau gomendatzen dugu:

- *Aurreko saldoak berrikustea, kobratzeko eskubideen adierazgarriak diren aztertze aldera.*
- *Itxitako aurrekontuetako diru-sarreraren kontzeptu desberdinak kobratzea errazten duten metodoak eta mekanismoak indartzea.*





IV.9. Hirigintza

Altsasuko Udalak bere baliabideekin garatzen ditu hirigintzako zereginak, “Hirigintzako Arloa” esaten zaion unitatearen bidez eta hari atxikita dauden bi pertsonarekin (arkitekto bat eta ofizial administrari bat).

Era gehigarrian, arkitekto batek hirigintza alorreko aholkularitza ematen dio Udalari, kanpoko zerbitzu moduan. 2016an, hain zuzen, 14.296 euroko gastua eragin du aholkularitza horrek.

Altsasuko Udaleko Antolamendu Plana 2003an onartu zuten. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezartzen zuten, 2006ko apirila bitartekoa, indarrean zeuden plangintzak homologatu eta egokitzeko. Udala 2018ko urtarrilean hasi da plan orokorra berrikusteko izapideak egiten.

Udalak hirigintzako hitzarmenen erregistro bat kudeatzen du. 2016an, plangintzako hitzarmen bat izenpetu da, Udaleko Hirigintza Planeko 19.E.1 egikaritze-unitateko hirigintza-aprobetxamendua lagatzeko eta urbanizatzeko baldintzetarako. Zenbatekoa 5.569 eurokoa da.

Jarduteko sistema moduan, Udala kooperazioko sistema aplikatzen aritu da; hartara, jabeek nahitaez laga beharreko lurzorua ematen dute eta Udalak urbanizatzeko lanak kudeatu eta gauzatzen ditu, haien kontura. Sistema horrek lan-zama nabarmena eragin die udal-langileei eta, aintzat hartuta dauden auzi ugariak, bai gastu juridikoen bolumen handia ere.

Gauzatzen ari diren hirigintzako jarduketa nagusiak hauek dira:

Sektorea	Erabilera
Dermau	Industriakoa
Lezalde	Familia bakarreko etxeak
Otadia	Etxe kolektiboak + familia bakarrekoak
Zelandi	Etxe kolektiboak

Oroitidazkian jasota dagoen informazioaren arabera, aurreko sektore horien egoera hau da:

a) Dermauren birpartzelazioa:

Oroitidazkian hau ageri da: “Egun, igorrita daude urbanizazio-kuotak, jada eragin diren gastuengatik, Dermau 7. sektoreko finketako jabeek (Birpartzelazioa egiteko proiektu berriaren izena emandakoa jada) eta betearazpen-bidean kobratzeko bidalita”. Horri dagokionez, adierazi behar dugu proiektuaren inskripzioa 2007an egin zela, eta ondorengo izapideak bideratzeko epea bost –behin betiko likidaziorako– eta zazpi –kargen erregistroko afektaziorako– urte artean ibili dela. Era berean, urbanizazioaren kostua aztertzen ari da, handia baita egungo egoerarako. Zenbait aukera planteatu dira eta aztertzen ari da aldaketa honek epe berria abiarazten duen gastuak igortzeko jabeek.





b) Lezaldereen birpartzelazioa:

Sektore honetako urbanizatzeko lanak geldiarazita daude. Laguntza-kontratutik eratorritako gastuengatik Udalak aurreratutako gastuak 164.911 eurokoak dira. 2015ean, Udala zigortu zen obren esleipena lortu zuen enpresari ordaintzera bai urbanizatzeko lanen kontratutik eratorritako industria-etekina bai eta hari zegozkion interesak ere; 117.947 euro, hain zuzen.

c) Otadiaren birpartzelazioa:

Urbanizatzeko amaituta dago. Udal Plana, Plan Partziala eta Birpartzelaziorako proiektua aldatu egin behar izan ziren, Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenaren epai baten ondorioz. 2011n, urbanizatzeko kuota igorri dira, 1,1 milioi euroren arabera. Era berean, errekurtsio bat dago, aprobetxamendu batzuen balorazioarengatik, ia 0,3 milioi euroko ondorio ekonomiko zenbatetsi baten arabera. 2015ean, Udala zigortu zen interesak ordaintzera, jabeen hirugarren likidazioa oker igortzeagatik. Zenbatekoa 75.049 eurokoa zen. 2016ko ekitaldiaren amaieran, Udalaren kontrako epaia eman zen eta jabeen 229.327 euro itzuli zitzaizkien. Haietatik 27.000 euro Udalari berari dagozkio.

d) Zelandi sektorearen garapena:

2011n, errekurtsioa ebatzi da eta dagokion Plan Partziala baliogabetu. Auto-bidetik gertu kokatuta dagoela kontuan izanik, garapen honen kokapena berriro planteatu behar da, zarataren gaineko araudi berriak izan dezakeen eragina aintzat hartuta.

Egoera horien gainean, Udaleko kontu-hartzailetzak egindako oroitidazkian ondokoa ondorioztatzen da:

“Urgentziazkoa da hirigintzari dagokion egoera osoa erregularizatzea berehala. Ez balitz hala egingo, ondorioz etor litezkeen erantzukizunez gain, Udalak “galdu” egingo luke aurreratu duen zenbatekoa, gutxi gorabehera 508.174,83 euro”.

Hau gomendatu behar dugu:

- *Hirigintzako plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzeko lanak amaitzea.*
- *Aurreko garapenak gauzatzean Udalak aurreratutako zenbatekoak berreskuratzeko egokiak diren kudeaketa-neurriak hartzea urgentziaz.*
- *Egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuta, geldiarazita dauden jarduketegi buruzko erabaki egokiak hartzea urgentziaz eta aztertzea.*





IV.10. Musika eta Dantza Eskolako Patronatua

Musika eta Dantza Eskolako 2016ko aurrekontuaren betearazpenaren egoerria hau da:

Gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	% betetakoa	Ordainketak	% ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	300.815	0	300.815	275.367	92	269.940	98	5.427
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	40.549	0	40.549	32.281	80	27.801	86	4.480
4. Transferentzia arruntak	361	0	361	250	69	250	100	0
Guztira	341.725	0	341.725	307.898	90	297.991	97	9.907

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	% betetakoa	Kobrantzak	% ordaindutakoa	Kobratzeko dagoena
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	104.365	0	104.365	102.293	98	92.091	90	10.201
4. Transferentzia arruntak	237.360	0	237.360	202.704	85	194.823	96	7.882
Guztira	341.725	0	341.725	304.997	89	286.914	93	18.083

Musika Eskolako 2016ko hasierako aurrekontuak 341.725 euroko gastuak eta diru-sarrerak ditu. Aitortutako betebeharrak eta eskubideak 307.898 eurokoak eta 304.997 eurokoak dira, ehuneko 90eko eta 89ko betearazpen-mailak izanik, hurrenez hurren.

Jarraian dauden tauletan, 2016ko ekitaldiko bere diruzaintza-gerakina eta aurrekontu-emaizta erakusten dira.

Diruzaintza-gerakina	2015	2016	Aldaketaren %
+ Kobratzeko dauden eskubideak	22.055	18.083	-18
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	(23.875)	(16.858)	-29
+ Diruzaintzako funts likidoak	7.792	1.880	-76
+ Finantzaketako desbideratze metatu negatiboak	0	0	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	5.973	3.105	-48
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0	-
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	0	0	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	5.973	3.105	-48

Aurrekontu-emaizta	2015	2016
+ Aitortutako eskubideak	304.885	304.997
- Aitortutako betebeharrak	(309.272)	(307.898)
= Aurrekontu-emaizta	(4.387)	(2.901)
Doikuntzak	0	0
Aurrekontu-emaizta doituia	(4.387)	(2.901)





A) Gastuak

2016ko eta 2015eko gastuen arteko alderaketa hau da:

2016-2015 ekitaldien alderaketa

Gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
1. Langile-gastuak	279.671	275.367	-2
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	29.351	32.281	10
4. Transferentzia arruntak	250	250	0
Guztira	309.272	307.898	0

- Langile-gastuak

2016an, langile-gastuak 275.367 eurokoak izan ziren, betearazpen-portzentajea ehuneko 92koa izan zen eta sortu ziren gastu guztien ehuneko 89 izan ziren. 2015eko datuekin alderatuta, gastu hori ehuneko 2 murriztu da.

Gastu horien banakatzea, eta 2015ekoekin alderatzea, hau da:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Lan-kontratudun langileak	211.777	208.615	-1
Gizarte-zamak	67.894	66.752	-2
Guztira	279.671	275.367	-2

Gastua murriztu izana, nagusiki, irakasleen jardunaldiaren portzentajea gutxitu izanari dagokio, 2016-2017 ikasturterako matrikulazioen kopurua gutxitu zelako. Hartara, arrazoi hori bera izanik, Gizarte Segurantzaren erakundeak egin beharreko gastua ere murriztu zen.

Udaleko osoko bilkurak 2016ko otsailean egin zuen saioan, aurrekontuak hasiera batean onetsi zirenean, Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2016rako plantilla organikoa bozkatu zen, baina ez zen onartu. Horrenbestez, 2016rako plantilla organiko indarduna 2015erako onartutakoa izan zen, NAO-n argitara eman zena 2015eko abuztuan.

Musikako Patronatuko plantilla organikoa, 2015ekoa, guztira, 16 lanpostuk eratzen dute, eta denen araubide juridikoa langile lan-kontratudun finkoena da.

Lanpostuak	Lanpostu-kopurua plantillan	Lanpostu hutsak
B mailako irakaslea	15	11
Ofizial administraria	1	1
Guztira	16	12





2016ko abenduaren 31n, Patronatuan, guztira, 17 enplegatu ari ziren lanean, xehetasun hauen arabera:

Araubide juridikoa	Enplegatu-kopurua
Lan-kontratudun finkoak	2
Bitarteko lan-kontratudunak	14
Aldi baterako lan-kontratudunak, obra/zerbitzurako	1
Guztira	17

Aldi baterako kontratazioen lagin bat eta enplegatuen lansarien lagin bat aztertu dira, eta ondorioztatu da arrazoizkoak direla.

Bitarteko lan-kontratudun langileetatik bosten antzintasuna bost urtetik gorakoa da, eta beren kontratuen iraupena data jakinik gabekoa da. Adierazten da beren indarraldia lanpostua bete edo eszedentzian dagoen langilearen aldia bete artekoa izango dela.

Hau gomendatzen dugu:

- *Urtero onartzea langileen plantilla organikoa, langileak zuzen kudeatzeko tresna ona eta egokia izan dadin.*

- *Egungo araudi-testuinguruan, aldi baterako langileen egoera erregularizatzea.*

- Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak

2016an, 32.281 euroko gastua, nagusiki, instalazioen mantentze-lanei, hornidurengatik gastuei eta beste gastu batzuei egokitu zaie, urtean zehar egindako musika-jaialdiekin lotuta. 2015eko datuen aldean, emendatze arin bat ikusten da, horniduren kontsumoa handitu izanarekin lotuta.

B) Aurrekontuko diru-sarrerak

2016ko ekitaldian, aitortutako eskubideak, kapituluaren arabera, hauek izan ziren. Aurreko ekitaldikoekin izan zituzten aldeak ere taulan ageri dira:

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	107.412	102.293	-5
4. Transferentzia arruntak	196.141	202.704	3
5. Ondarezko diru-sarrerak	1.333	0	-100
Guztira	304.886	304.997	0

Diru-sarreraren aurrekontuaren betearazpen-maila ehuneko 89koa izan da, eta aitortutako eskubideak aurrekontuan jasotakoak baino txikiagoak izan dira kapitulu guztietan. Ez da emendatze adierazgarririk izan 2015aren gainean.

Erabiltzaileen kuoten diru-sarrerak gutxitu egin dira ikasle gutxiago izan delako. 2016-2017 ikasturtean aplikatutako tasak 2015-2016 ikasturtean aplikatutakoen antzekoak dira.





Transferentzia arruntetan jasotako zenbatekoan, 186.941 euro langileetatik eratorritako gastuak ordaintzeko eta, hartara, diru-sarreraren eta gastuen arteko orekari eusteko Udalak egindako ekarpenei dagozkie. Gainerako zenbatekoa, 15.764 euro, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bati dagokio.

2015eko ondarezko diru-sarreretan jasotako zenbatekoa Iberdrolari eguzki-energia saltzeari zegokion, eta 2016an “Tasen eta beste diru-sarrera batzuen” kapituluan erregistratu zen.

Diru-sarreraren (kuotak eta diru-laguntzak) aurrekontuko kontu-sailen lagin baten gainean egindako azterketatik egiaztatu dugu, oro har, beren izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea egokia dela.

C) Beste alderdi batzuk

Ez dago erakunde autonomoaren ondasunen inbentariarik, eta Eskolak garatzen duen jardueraren gainean Udalak barne kontrola egiteko prozedurarik ez da aplikatzen.

Gomendioak:

- *Eskolaren jabetzakoak diren ondasunak eta, egokia bada, bere jarduna garatzeko beste administrazio batzuek lagata jasotakoak bilduko dituen inbentario bat egitea.*
- *Eskolak garatzen duen jardueraren gainean Udalak egin behar duen kontrola, esku-hartzea eta aholkularitza egoki berrmatuko duten prozedurak aplikatzea.*





IV.11. "Aita Barandiaran" Zaharren Egoitzako Patronatua

"Aita Barandiaran" Zaharren Egoitzako 2016ko aurrekontuaren betearazpenaren egoera-orria hau da:

Gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	% betetakoa	Ordainketak	% ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	646.843	0	646.843	622.596	96	608.318	98	14.278
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	370.927	0	370.927	342.797	92	307.977	90	34.820
4. Transferentzia arruntak	1.000	0	1.000	621	62	621	100	0
Guztira	1.018.770	0	1.018.770	966.014	95	916.916	95	49.098

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	% betetakoa	Kobrantzak	% kobratutakoa	Kobratzeko dagoena
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	461.803	0	461.803	497.984	108	497.108	100	876
4. Transferentzia arruntak	556.242	0	556.242	533.970	96	500.427	94	33.543
5. Ondarezko diru-sarrerak	725	0	725	1.467	202	1.467	100	0
Guztira	1.018.770	0	1.018.770	1.033.421	101	999.002	97	34.419

Zaharren Egoitzako 2016ko hasierako aurrekontuak 1,02 milioi euroko gastuak eta diru-sarrerak ditu. Aitortutako betebeharrak eta eskubideak 0,96 milioi eurokoak eta 1,03 milioi eurokoak dira, ehuneko 95eko eta 101eko betearazpen-mailak izanik, hurrenez hurren.

Jarraian dauden tauletan, 2016ko ekitaldiko bere diruzaintza-gerakina eta aurrekontu-emaizta erakusten dira.

Diruzaintza-gerakina	2015	2016	Aldaketaren portzentajea
+ Kobratzeko dauden eskubideak	26.227	35.384	35
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	(91.654)	(66.482)	-27
+ Diruzaintzako funts likidoak	93.892	126.970	35
+ Finantza-geraketa desbideratze metatu negatiboak	0	0	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	28.465	95.872	237
Diruzaintza-gerakina, finantza-geraketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0	-
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	0	0	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	28.465	95.872	237

Aurrekontu-emaizta	2015	2016
+ Aitortutako eskubideak	931.955	1.033.421
- Aitortutako betebeharrak	(931.955)	(966.014)
= Aurrekontu-emaizta	0	67.407
Doikuntzak	0	0
Aurrekontu-emaizta doituak	0	67.407





A) Gastuak

2016ko eta 2015eko gastuen arteko alderaketa hau da:

2016-2015 ekitaldien alderaketa

Gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
1. Langile-gastuak	592.089	622.596	-2
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	339.140	342.797	10
4. Transferentzia arruntak	726	621	0
Guztira	931.955	966.014	0

- Langile-gastuak

2016an, langile-gastuak 622.596 eurokoak izan ziren, betearazpen-portzentajea ehuneko 96koa izan zen eta sortu ziren gastu guztien ehuneko 64 izan ziren. 2015eko datuekin alderatuta, gastu hori ehuneko 5 emendatu da.

Gastu horien banakatzea, eta 2015ekoekin alderatzea, hau da:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
Lan-kontratudun langileak	445.724	481.311	8
Gizarte-zamak	146.365	141.284	-3
Guztira	592.089	622.595	5

Langile-gastua handitu izana, batetik, Nafarroako Aurrekontu Orokorraren Foru Legean aurreikusitakoaren arabera, soldatak ehuneko 1 emendatzeari dagokio, eta, bestetik, ordezkapenak egiteko premia handiagoei erantzuteko kontratatzeak gehitu izanari.

Gizarte Segurantzarako erakundeak egin beharreko gastua murriztu egin zen bajengatik Gizarte Segurantzak egindako konpentsazioengatik. Izan ere, 2015ean, Gizarte Segurantzaren konpentsazioak 1.764 eurokoak izan ziren, eta 2016an, berriz, 14.957 eurokoak.

Udaleko osoko bilkurak 2016ko otsailean egin zuen saioan, aurrekontuak hasiera batean onetsi zirenean, Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2016rako plantilla organikoa bozkatu zen, baina ez zen onartu.

Horrenbestez, 2016rako plantilla organiko indarduna 2015erako onartutakoa izan zen, NAO n argitara eman zena 2015eko abuztuan. 2015ean, plantilla organiko horren aldeketa bat onetsi zen, Lan Ikuskaritzaren eskariz, 2015eko irailaren 30eko Udaleko osoko bilkuraren saioko agirian jasota dagoen moduan, kontratu mugagabeak obra edo zerbitzuengatik aldi baterako kontratu moduan ageri zirelako.

Zaharren Egoitzako plantilla organikoan, 2015ekoan, lanpostu hauek jasotzen dira, denak lan-kontratudun langileenak:





Enplegatuak	Lanpostu-kopurua
Zuzendaritza	1
Osasun-laguntzaile teknikoa	1
Mantentzea	1
Zaintzaileak	14
Lanaldi partzialeko zaintzaileak	3
Guztira	20

Lanpostu guztiak lanpostu huts gisa ageri dira plantillan.

2016ko abenduaren 31n, Patronatuan, guztira, 27 enplegatu ari ziren lanean, xehetasun hauen arabera:

Araubide juridikoa	Enplegatu-kopurua
Mugagabea, lanaldi osoa	11
Mugagabea, lanaldi murriztua	2
Bitarteko langilea, lanaldi osoa	7
Bitarteko langilea, lanaldi partziala	2
Bitarteko langilea (ordezkapenak)	5
Guztira	27

Aldi baterako kontratazioen lagin bat eta enplegatuen lansarien lagin bat aztertu dira, eta ondorioztatu da arrazoizkoak direla.

Plantilla organikoan sartuta ez dauden bost langile daude. Dena den, bertan adierazita dago aurreikusita zegoela lau laguntzaile eta osasun-laguntzaile tekniko bat kontratatzea, ohiko langileen ordezkapenei erantzun ahal izateko.

Aldi baterako lan-kontratadun langileetatik zazpiren antzinatasuna bost urte-tik gorakoa da.

Oporrengatik, bajengatik, baimenengatik eta abarrengatik ohiko plantillako langileen ordezkapenak egiteko aldi baterako kontratatutako langileak 2010ean egin zen enplegu-poltsa baten bidez kontratatzen dira. Planteatuta dago laster zerrenda berria egiteko prozesua abiaraztea.

Hau gomendatzen dugu:

- *Urtero onartzea langileen plantilla organikoa, langileak zuzen kudeatzeko tresna ona eta egokia izan dadin.*

- *Egungo araudi-testuinguruan, aldi baterako langileen egoera erregularizatzea.*

- *Aldi baterako kontratatzeetarako zerrendak aldian behin egin edo eguneratzea.*





- Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak

2016an, 342.797 euroko gastua, nagusiki, instalazioen mantentze-lanei, elikadura eta garbiketagatiko gastuei, hornidurei, arropa zuriei eta egoitzako gauzei, eta beste batzuek emandako zerbitzuei egokitu zaie. 2015eko datuen aldean, emendatze arin bat ikusten da, beste batzuek emandako zerbitzuekin lotuta.

Kontratuak aztertzeari dagokionez, 2016an kontratu hau esleitu da. Bere gastuak kapitulu honetan sartzen dira:

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleitzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	Eskaintzaileen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	2016ko gastua (BEZa kanpo)
Elikadura- eta garbiketa-zerbitzua	Laguntza	Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekia	194.516	3	187.124	124.749

Kontratuaren esleipena aztertu da eta ondorioztatu legeria indardunean jasota dagoenarekin bat datorrela. Halaber, adierazi behar da 2017an enpresa esleipendunak uko egin diola kontratua luzatzeari. Ondorioz, Udalak esleitzeko prozedura egin behar izan du (Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekia) eta eskaintza aurkeztu duen enpresa bakarrari esleitu dio zerbitzua. Zenbatekoa 186.971 eurokoa da.

Behin eta berriz eskatu den arren kontratu indardunen zerrenda, ez digute eman. Hortaz, ezin izan ditugu aztertu kapitulu honetan gastu errepikaria duten kontzeptu nagusien kontratuak, besteak beste, hornidura elektrikoarena, bero-kuntzarako erregaiarena eta jardueren kudeaketarena.

B) Aurrekontuko diru-sarrerak

2016ko ekitaldian, aitortutako eskubideak, kapituluaren arabera, hauek izan ziren. Aurreko ekitaldikoekin izan zituzten aldeak ere taulan ageri dira:

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren portzentajea
	2015	2016	
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	474.717	497.984	5
4. Transferentzia arruntak	455.989	533.970	17
5. Ondarezko diru-sarrerak	1.249	1.467	17
Guztira	931.955	1.033.421	11

Diru-sarreraren aurrekontuaren betearazpen-maila ehuneko 101ekoa izan da, eta aitortutako eskubideak aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak izan dira 3. eta 5. kapituluetan. 2015eko ekitaldiko datuekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko 11 handitu dira.

2016an, erabiltzaileen kuoten zenbatekoa handitu da, funtsean, plazen betetze-maila handiagoa izan delako.





Transferentzia arruntetan jasotako 2016ko diru-sarreretan, 419.96 euro Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzei dagozkie, 113.744 euro Udalaren ekarpenak dira eta 1.131 euro partikularren dohaintzak.

Udalak egindako ekarpenak 2015ean eta 2016an 105.831 eta 67.294 eurokoak izan dira, hurrenez hurren. Edonola ere, Zaharren Egoitzan, 2015eko eta 2016ko diru-sarrera gisa, 59.380 eta 113.744 euro jaso dira, hurrenez hurren. Hau da, Udalak 2015ean emandako ekarpeneko 46.450 euro 2016ko ekitaldiko diru-sarrera moduan aitortu dira.

Aurrekoaren ondorioz, 2015ean oreka izan zen diru-sarreraren eta gastuen artean; eta 2016an, Zaharren Egoitzak 67.408 euroko superabita izan zuen.

Ondarezko diru-sarrerak finantza-erakunde batean gordailututako funtsen interesei dagozkie.

Diru-sarreraren (kuotak eta diru-laguntzak) aurrekontuko kontu-sailen lagin baten gainean egindako azterketatik egiaztatu dugu, oro har, beren izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea egokia dela.

C) Beste alderdi batzuk

Ez dago erakunde autonomoaren ondasunen inbentariarik, eta Zaharren Egoitzak garatzen duen jardueraren gainean Udalak barne kontrola egiteko prozedurarik ez da aplikatzen.

Gomendioak:

- *Zaharren Egoitzaren jabetzakoak diren ondasunak eta, egokia bada, bere jarduna garatzeko beste administrazio batzuek lagata jasotakoak bilduko dituen inbentario bat egitea.*

- *Zaharren egoitzak garatzen duen jardueraren gainean Udalak egin behar duen kontrola, esku-hartzea, aholkularitza eta tutoretza egoki bermatuko duten prozedurak aplikatzea.*

IV.12. "Atabo Altsasu, S.L." sozietatea

2009ko abenduan, Udalak "Atabo Altsasu, S.L." sozietatea eratu zuen, 3.300 euroko kapitalarekin eta Udalaren jabetzako ehuneko 100ean. Sozietate horrek 2010etik eta zortzi urteko iraupenarekin – zenbait kirol-instalazioren kudeaketa eta Zelandiko igerileku berriaren, Burunda taberna-frontoiaren lokalen eta Dantzalekuko igerilekuen errentamendua ditu aginduta. 2016ko martxoan, agindu hori aldatu zen, bertan sartzeko Usolarrain aldeko mantentzea eta laguntza.

2016ko ekitaldi horretarako, aurreikusi zen Udalak sozietateari 166.137 euro ordaintzea, eta hilero ordaintzen aritu zen, aurretik faktura edo agiria aurkeztuta. Era berean, nabarmendu behar dugu, BEZaren araudia aldatu delako, diru-





sarrera horiek ez daudela zerga horren pean. Hartara, horrek modu esanguratsuan eragin du ekitaldiko emaitza hobetzean.

Txosten hau idazten ari ginenean, oraindik ez dizkigute eman 2016ko ekitaldiko urteko kontuak, administratzaileek (Administrazio Kontseiluko kideak) behar bezala formulatutakoak. Horrenbestez, ezin dugu horren gaineko iritzirik azaldu.

2016ko abenduaren 31ko egoera-balantzea dugu eta 2016ko ekitaldiko dirugaleren eta irabazien kontu batena. Jarraian ageri dira:

Egoera-balantzea, 2016ko abenduaren 31n

Aktiboa	2015	2016
Ibilgetu ukiezina	215.666	107.833
Ibilgetu materiala	7.632	6.272
Ibilgetua	223.298	114.105
Aktibo ez-arrunta	223.298	114.105
Izakinak	150	0
Zordunak	18.747	4.408
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	33.875	29.786
Aktibo arrunta	52.772	34.194
	276.070	148.299

Pasiboa	2015	2016
Funts berekiak	-74.637	-31.373
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	215.665	107.833
Ondare garbia	141.028	76.460
Epe luzerako zorrak	965	3.000
Pasibo ez-arrunta	965	3.000
Epe laburrerako zorrak	65.439	11.130
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	68.638	57.709
Pasibo arrunta	134.077	68.839
	276.070	148.299





2016ko diru-galeren eta irabazien kontua

	2015	2016
Negozio zifraren zenbateko garbia	583.379	604.086
Hornidurak	-3.116	-5.778
Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	127.282	167.493
Langile-gastuak	-406.516	-408.064
Ustiapeneko beste gastu batzuk	-312.872	-306.787
Amortizazioak	-112.601	-111.077
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak eta bestelakoak egozteak	107.833	107.833
Narriatzea eta emaitza, ibilgetuaren besterentzeak direla-eta	0	-258
Beste emaitza batzuk	-1.766	-3.174
Ustiapeneko emaitza	-18.014	44.274
Finantza-gastuak	-1.615	-1.010
Finantza-emaitza	-1.615	-1.010
	-19.629	43.264

“Informe de gestión de Atabo Altsasu, S.L. año 2016” izenburua duen dokumentua eskuratu dugu, 2016ko martxoaren 16ko data duena baina inolako sinadurarik ez duena. Bertan adierazten da asmoa hau dela: *“Atabo Altsasu, S.L. sozietatean 2016 osoan garatu den jarduera atal desberdinetan deskribatzea. Helburua da alderdi ekonomikoei, antolaketakoei eta erakundekoei buruzko informazioa ematea”*.

Eman dizkiguten agirien gainean egindako azterketatik ondokoak aipatu behar dira:

- Merkataritzako araudia betetzea.

Ez dizkigute eman sozietatearen urteko kontuak, administratzaileek behar bezala formulatuak (sinatuak), ez 2016ko ekitaldikoak eta aurreko ekitaldietakoak.

Nafarroako Merkataritza Erregistroan lortu dugun informazioaren arabera, 2015eko eta aurreko ekitaldietako sozietatearen urteko kontuak daude bertan, eta egiaztatzea edo legeztautzea eraman dira 2016ko eta lehenagoko liburu ofizialak.

- Sozietatearen erakunde-egituraren diseinua.

Bere estatutuen arabera, “Atabo Altsasu, S.L.” sozietatearen zuzendaritza-eta administrazio-organoak hauek dira: Batzar Nagusia, Administrazio Kontseilua eta lehendakaria, eta kudeatzailea.

Ez dago idatziz jasota Kontseiluaren eginkizunak lehendakariaren eta/edo kudeatzailearen esku utzi izana berariaz; eta, horrenbestez, eguneroko kudeaketako edozein egintza administrazio-kontseilu horrek hartu beharko luke bere gain. Era berean, ez daude jasotan aipatutako kudeatzaile horri dagozkion edo izendatzen dizkieten eginkizunak.

Beste alde batetik, adierazi behar da 2016an hiru pertsona izan direla, inguruabar desberdinengatik, kudeatzaile postua bete dutenak.





- Langileriaren kudeaketan bi arazo daude: langileen ordutegia ez dago behar bezala planifikatuta, eta langile batzuek aldi baterako kontratu-kate luzea daukate. Hori dela eta, langile horiek aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko erreklamazioak aurkeztu dituzte. Gogoratzekoa da 2017ko Estatuaren Aurrekontu Legearen 34. xedapen gehigarriak debekatu egiten duela aldaketa, epaile baten sententziagatik ez bada.

- Kirol-instalazioak erabiltzeko eskubidea. Eskubide horri 862.000 euroko balioa esleitu zitzaion, 8 urtetan banatu beharrekoa eta, hortaz, urtean 107.833 euro. Zenbateko hori diru-sarreratzat jotzen da, ekitaldi bakoitzeko emaitzen kontuan diru-laguntzak egozteagatik.

- 2016an, sozietateak kirolguneko eta Dantzaleku aisia-eremuko mantentze eta garbiketako eta taberna-jatetxeko kudeaketarako kontratua esleitu zuen. Txosten hau idatzi denean, oraindik ez digute eman ez kontratua ez eta hura esleitzeko euskarria eman duen dokumentazioa ere.

- Ez dago jasota Udaleko zerbitzu teknikoek sozietatearen jardueraren kontrola eta gainbegiratzea egiteko jarduketarik egiten dutenik.

Hau gomendatzen dugu:

- *Sozietateari aplikatzekoa zaion merkataritza-arloko araudia betetzea (funtsean, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategina), urteko kontuak formulatu eta Merkataritzako Erregistroan aurkezteari dagokionez.*

- *Sozietatea pertsona bakarrekotzat edo unipertsonaltzat jotzea, bazkide bakarra, Udala, baita kapitalaren akzioak dituena.*

- *Urgentziazkoa da Kontseiluko lehendakaritzaren eta/edo kudeatzaitzaren esku uztea berariaz egoki jotzen diren eginkizunak, eta bai kudeatzaitza horrek garatu beharreko zereginak zehaztu eta izendatzea ere eta beharrezkoak diren kontrol-mekanismoak ezartzea.*

- *Sozietateari aplikatzekoa zaion finantza-informazioaren esparruan ezarritako kontabilitateko araudia aplikatzea (Kontabilitateko Plan Orokorra) bere eragiketak kontabilizatzean eta urteko kontuak egitean.*

- *Era egokian zehaztea Udalaren aldetik sozietateak egiten dituen eragiketen gaineko gainbegiratze eta esku-hartze eginkizunak.*

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Ignacio Cabeza del Salvador auditoreak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko martxoaren 7an


Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga





Eranskina. Udalaren Kontu Orokorraren Oroitidazkia, 2016





Ayuntamiento ALTSASU/ALSASUA
Informe de Cuentas Anuales
del ejercicio al 31 de diciembre de 2016

ÍNDICE

Página

1. ESTADOS CONTABLES	3
2. EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA	10
I Introducción	11
II Liquidación presupuestaria del ejercicio	13
III Informe sobre la liquidación presupuestaria	14
IV Notas a la ejecución de los gastos	20
V Notas a la ejecución de los ingresos	26
VI Análisis cumplimiento LOEPSF	32
3. CONTRATACIÓN	37
4. BALANCE DE SITUACIÓN	41
I Bases de presentación	42
II Principios contables	42
5. OTROS COMENTARIOS	43
I Compromisos y contingencias	44
II Situación fiscal del Ayuntamiento	50
III Urbanismo	50
IV Acontecimientos posteriores al cierre del ejercicio	50
6. ANEXOS	51
Anexo I: Patronato de música	52
Anexo II: Patronato Residencia de Ancianos	55

1.- ESTADOS CONTABLES

AYUNTAMIENTO ALTASAŪ/ALSASUA
ESTADO DE LIQUIDACION DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2016
(expresado en Euros)

EJECUCION DEL PRESUPUESTO DE GASTOS

Concepto	Capítulo	Previsión Inicial	Modificaciones Aum/Dism	Previsión definitiva	Obligaciones reconocidas	Pagos liquidados	Pagos Pendientes	% de ejecución	% s/total reconoc.
Gastos de personal	1	2.448.264,14	47.679,57	2.495.943,71	2.374.799,11	2.343.987,20	30.811,91	95%	38%
